



Desobedientzia Zibila

Thoreauren etxola

[Audioliburua Irakurri 'Desobedientzia Zibila' Jaitsi liburua Markos Zapiain, Thoreauren inguruan Patxi Hipolito editore librea \(1966-2010\) Read 'Civil Disobedience' Utzi zure mezua Wikitulpen: lagundu itzulpena hobetzen Zer esan dute gure lanaz?](#)

Thoreauren etxola

Henry David Thoreau (1817-1862) Ameriketako Estatu Batuetako idazleak ez zuen inoiz kargu politikorik izan, ez zen ezkondu eta ez zuen haurrik sortu. Eta, halere, Historia aldatu zuen.



Haren bizitzako gertaerarik garrantzitsuenak bi izan ziren: ekintza xume bat —Basoan etxola batera bizitzera joan zen bi urtez— eta ez-ekintza bat —zergak ordaintzeari uko egin zion (kartzelan sartu zuten, egun batez)—. Baina etxolan idatzitako *Walden* liburuarekin gaurko ekologismoaren aitzindaria bihurtu zen. Kartzelako esperientziatik abiatuta, berriz, *Desobedientzia Zibila* maisulana idatzi zuen. Testu horretatik atera zuen **Gandhik** Indiaren independentziarako bere mugimenduaren izena. Hortik atera zuen **Martin Luther Kingek** indarkeriarik gabeko erresistentziaren ideia.

Pertsona gutxik eragin dute horrenbeste hain gutxirekin.

Thoreauk berak honela laburbiltzen zuen: "Bizitzan asko bidaiatu naiz ... nire herriaren barruan".

Gune honek Thoreauren *Desobedientzia Zibila* zabaltzea du xede. Hemendik, testua [irakur](#) daiteke, liburu elektronikoko gisa [jaitsi](#), eta audioliburu gisa [entzun](#). Horrez gain, euskarazko itzulpena hobetzen [lagun](#) dezakezu.

[Facebooken](#) gaude eta baita [Twitterren](#) ere

Jaitsi liburua


Potxo Edizioak 2010eko urtarrilean paperean plazaraturiko liburua jaitsi dezakezu hemen, liburu elektronikoa gisa, doan. Dena den, zure asmoa testua inprimatzea bada, agian hobe zenuke guri kopia bat eskatzea. Arrunt garestiago ez zaizu aterako, eta, azkenean, liburu askoz atseginagoa izango duzu eskuartean.

Kopia bat eskatzeko: [potxoedizioak\(a bildua\).gmail.com](mailto:potxoedizioak(a bildua).gmail.com)

Liburua ikusteko: [Desobedientzia Zibila pdf](#)

Liburua jaisteko: [EPUB formatuan](#)

PDF formatuan nahi baduzu, egin klik azalaren irudian



Liburuaren fitxa:

Argitaratzen du: potxo edizioak

Azala: Joxan Iza

Sarrera: Markos Zapiain

Itzulpena: Edu Lartzainguren

Ilustrazioak: Aitor Bolinaga eta D.B. Johnson

Maketazioa: Roberto Maiztegi

Edizioaren arduraduna: Patxi Hipólito

Artikulu hau hobe dezakezu... badakizu nola?

Henry David Thoreau

Wikipedia(e)tik



Henry David Thoreau

Henry David Thoreau (Concord, [Masachusetts](#), [1817ko uztailaren 12a](#) - [1862ko maiatzaren 6a](#)) [estatubatuar](#) filosofo, idazle eta naturalista bat izan zen. Ezaguna da *Walden* idatzi (inguru naturalean soilki bizitzeko hausnarketa) eta *Civil Disobedience* saiakera argitaratu zituelako.

Bizitza


Bere bizitzan zehar hainbat lanbide izan zituen: [arkatz](#) ekoizle (aitaren negozioa), irakasle, "ekaitz ikustatzailea" -lanbide honen berri *Walden* liburuan ematen du- ibilita izana, baina burututako jarduera guztien artean, idazlearena aipatu behar.

[Herman Melville](#) edo [Mark Twainen](#) garaikidea izanda, beroriekin batera iparamerikar literaturaren sortzailetarikoa dugu. Saioa eta olerkigintza landu zituen bereziki. Bere saioetan berorren pentsamendua, gizarte eta giza harremanen ikuspuntua islatzen ditu. Gaur egun nabari egiten zaizkigun industri gizartearen gabeziak aurreikusi zituen [XIX. mendearen](#) erdialdean. Nahiz eta industri bilakaera eta garapenaren garaian hazi, Thoreauk, bere garaikide askok ez bezala, ez zuen teknologiarekiko lilura edo federik izan.

[Izadiarekin](#) bat egiten duen bizimodu apal eta xumea aldarrikatzen zituen, eta ideia hauek jarraitu ezezik, praktikara eraman zituen.

Izan ere, 1845ko uztailaren 4tik 1847ko irailaren 6a bitartean, bi urte luze igaro zituen Walden basoan barrena bizitzen, bere eskuz eraikitako etxola batetan. Bi urte hauen bizipen, arazo eta pasadizoen berri 1854. urtean argitaratu zen "Walden, the life in the woods" delako liburuan ematen du, bere lan ezagunena delarik. Liburu honetan hainbat gai lantzen ditu, betiere gizabanakoen beharrak neurtu eta beroiek hasetzeko beharrezkoa den lana aztertzen dituelarik.

Waldenen, lehendabizi gizartearen kritika zorrotza egiten hasten da. Bere ustez, behar baino erosotasun gehiagorekin hornitzen saiatzen da gizakia, eta jarrera horrek erraz saihestu daitezkeen hainbat betebeharrak darama. Bide honek alferrikako lanak besterik ez ditu ematen, eta bizitzaren funtsezko mamitik urruntzen omen gaitu. Bidegabekeri honetatik ateratzeko, Thoreauk naturarekiko elkartasuna, bakartasunean oinarria duen norbanako askatasuna aldarrikatzen ditu, eta bizimodu honen lan eta errentagarritasuna aztertu ere egiten du. Azterketa eta gizarte edo ekonomiari buruzko iritziak alde batera utzita, ondoren basoan eguneroko bizitzaren azalpenari ekiten dio; atal honetan izadia eta berorren boterea eta edertasunaren lilura dario hainbat orrialde.



Thoreau [1879an](#)

Walden basoan bizitzen egonda, gobernuaren funtzionario batekin ezbehar bat izan zuen, zergak ordaintzeari uko egin zionean. Izan ere, Thoreauk ez zegoen [Mexikoko Gerra](#) aurrera eramanean, eta [esklabotza](#) onartzen zuen gobernu bati laguntzeko prest. Hika-mika honen ondorioz kartzelaratua izan zen, eta hurrengo egunean askatua, lagun batek fidantza ordaindu ostean.

Bere pentsaera politikoa "Resistance to civil Government" liburuan argi eta garbi uzten du. Gobernuaren betebeharrak eta berorren eragina giza bizitzan aztertzen ditu. Gizabanakoek burututako ihardueretan gobernuak eragiten dien ondorioei kaltegarri deritze. Bere ustez gobernuak hobe da gutxiengatik agintzen duen heinean, eta gobernu hobea inolako aginterik ez duena dela esatera heltzen da. Hau esanda, zenbait jende anarkistatzat hartu izan du Thoreau, baina Thoreauk, nahiz eta estatua zein gobernuari muzin egin, ez du bere desagerpena aldarrikatzen. Bere esanetan: "ez dut gobernuaren desagerpena eskatzen, baizik eta gobernu hobe bat". Thoreauren ustez, estatu baten aginteak ez du sekula biztanleriaren nahia gainditu behar, eta ala balitz, orduan biztanleriak ez du bidegabekeri deritzen legeak zertan jarraitu behar.

Bere pentsaera [Gandhi](#) edota [Martin Luther Kingen](#) ideien iturri izan dira.

Lanak

- *The Service* (1840)
- *A Walk to Wachusett* (1842)
- *Paradise (to be) Regained* (1843)
- *The Landlord* (1843) [3]
- *Sir Walter Raleigh* (1844)
- *Herald of Freedom* (1844)
- *Wendell Phillips Before the Concord Lyceum* (1845)

- *Reform and the Reformers (1846-8)*
- *Thomas Carlyle and His Works (1847)*
- *A Week on the Concord and Merrimack Rivers (1849) [4]*
- *[Resistance to Civil Government](#), or Civil Disobedience (1849)*
- *An Excursion to Canada (1853) [5]*
- *Slavery in Massachusetts (1854)*
- *[Walden](#) (1854)*
- *A Plea for Captain John Brown (1859)*
- *Remarks After the Hanging of John Brown (1859)*
- *The Last Days of John Brown (1860)*
- *Walking (1861) [6][7]*
- *Autumnal Tints (1862) [8]*
- *Wild Apples: The History of the Apple Tree (1862) [9][10]*
- *Excursions (1863)*
- *Life Without Principle (1863)*
- *Night and Moonlight (1863) [11]*
- *The Highland Light (1864) [12]*
- *The Maine Woods (1864) [13]*
- *Cape Cod (1865) [14]*
- *Letters to Various Persons (1865)*
- *A Yankee in Canada, with Anti-Slavery and Reform Papers (1866)*
- *Early Spring in Massachusetts (1881)*
- *Summer (1884)*
- *Winter (1888)*
- *Autumn (1892)*
- *Misellanies (1894)*
- *Familiar Letters of Henry David Thoreau (1894)*
- *Poems of Nature (1895)*
- *Some Unpublished Letters of Henry D. and Sophia E. Thoreau (1898)*
- *The First and Last Journeys of Thoreau (1905)*
- *Journal of Henry David Thoreau (1906)[15]*

Kanpo loturak



[Wikisanesanetan](#) artikulu bat dago honi buruz:

[Henry David Thoreau](#)



[Commonsen](#) fitxategi gehiago dago honi buruz:

[Henry David Thoreau](#)

"http://eu.wikipedia.org/wiki/Henry_David_Thoreau"(e)tik eskuratuta

Kategoriak: [Ameriketako Estatu Batuetako idazleak](#) • [Ingeleseko idazleak](#)

Orrialdearen azken aldaketa: 09:28, **6 Abendua 2010**.

Henry David Thoreau

Wikiquote(e)tik



Henry David Thoreau.

Henry David Thoreau (1817-1862) estatubatuar filosofo, idazle eta naturalista bat izan zen.

Henry David Thoreauren esanak

- "Bizitzan asko bidaiatu naiz... nire herriaren barruan".
- "Umiltasunak, iluntasunak bezalaxe, zeruko argiak erakusten ditu". - *Walden, basoetako bizitza*.
- "Zuzengabeko legeak egon, badaude: obeditu besterik ez al dugu egin behar, ala zuzentzen saiatu? Zuzentzea lortzen dugun arte obeditu behar ditugu, ala besterik gabe hautsi?"

Kanpo loturak



[Wikipedian](#) artikulu bat dago:

[*Henry David Thoreau*](#)



[Commonsen](#) artxibo gehiago dago:

[*Henry David Thoreau*](#)

- [\(eu\)](#) [Desobedientzia Zibila](#) web gunea

"http://eu.wikiquote.org/wiki/Henry_David_Thoreau"(e)tik jasota

Kategoriak: [Filosofoak](#) | [Idazleak](#)

Orrialdearen azken aldaketa: 20:02, **26 Iraila 2010**.

Category:Henry David Thoreau

Wikimedia Commons(e)tik

English: [Henry David Thoreau](#) (1817 - 1862) was an American author, philosopher and poet

Azpikategoriak

Kategoria honek beste honako azpikategoria baino ez du.

P

- [\[×\] Walden Pond](#) (0)

"Henry David Thoreau" kategoriako artikuluak

Kategoria honek honako orrialdea baino ez du.

H

- [Henry David Thoreau](#)

Media "Henry David Thoreau" kategorian

Honako 35 fitxategiak kategoria honetan daude guztira dauden 35tik.



[1854 Walden byThorea...](#)
58.921 byte



[4 PinckneySt Boston ...](#)
5.041.771 byte



[Appletons' Thoreau H...](#)
17.774 byte



[Appletons' Thoreau H...](#)
65.215 byte



[Autumnal-Tints.png](#)
7.891 byte




[Cabinsite.jpg](#)
137.019 byte



[Collier's Thoreau He...](#)
33.642 byte



[Eggs BSNH 1930.png](#)
34.939 byte



[Familiar letters of ...](#)
10.076.174 byte



[Henry David Thoreau ...](#)
34.828 byte



[Henry David Thoreau](#)
178.965 byte



[Henry David Thoreau](#)
214.391 byte



[Henry David Thoreau](#)
82.672 byte



[Henry David Thoreau](#)
1.432.025 byte



[Henry David Thoreau.jpg](#)
184.462 byte



[HenryDavidThoreau-gr...](#)
951.398 byte



[HenryDavidThoreauGra...](#)
62.328 byte




[House belonging to H...](#)
388.126 byte



[Hut2.jpg](#)
44.363 byte



[Slaveryinmass thorea...](#)
21.628.940 byte



[Thoreau Henry David](#)
4.631 byte



[Thoreau Resistance \(...](#)
1.201.274 byte



[Thoreau at 37.jpg](#)
710.336 byte



[Thoreau in jail plaq...](#)
4.028.795 byte



[Thoreau's cabin insi...](#)
1.814.570 byte



[Thoreau's memorial i...](#)
1.890.314 byte



[Thoreau-Alcott House...](#)
1.324.542 byte



[Thoreau-gravesite.jpg](#)
661.459 byte



[Thoreau.jpg](#)
11.788 byte



[Thoreau1967stamp.jpg](#)
25.583 byte



[ThoreauBust.jpg](#)
251.968 byte




[ThoreauHouse Boston ...](#)
595.428 byte



[ThoreauMemorial1.jpg](#)
127.215 byte



[VII. Rowse.jpg](#)
1.338.221 byte



[Walden Thoreau.jpg](#)
36.626 byte

"http://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Henry_David_Thoreau"(e)tik jasota

Kategoriak: [Writers from the United States](#) | [1817 births](#) | [1862 deaths](#) | [Philosophers from the United States](#) | [Essayists](#) | [Transcendentalism](#) | [19th century philosophers](#) | [Nonviolence advocates](#)
Izkutuko kategoria: [People by name](#)